

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Baja ematea udalaren biztanle erroldan

Interesdunari ezin izan zaionez ebazpen hau zuzenean jakinarazi, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 40. artikuluan ezartzen duena betez, hemen argitaratuta jakinarazten zaie:

“Egiaztatu ondoren ez dela bizi udalerrian, hasiera eman zaio Y1057942W zenbakiko egoitza txarteldun pertsonari udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emateko espedienteari.

Egin beharreko jakinarazpena BOEn eta ALHAOn argitaratu eta interesdunei jakinarazi zaie.

Errolda Kontseiluaren Lurraldeko Atalak 2021eko urtarrilaren 20ko bileran egindako aldeko txostena ikusi da.

Honen bidez, eta Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.s) artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz,

EBATZI DUT

Donemiliagako biztanle erroldan ofizioz baja ematea Y1057942W zenbakiko egoitza txarteldun pertsonari, 2021eko urtarrilaren 27ko datakin.

Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dute bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako txandako epaitegian.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango duzu, nahi izanez gero, jakinarazten den esanbidezko ebazpen hau hartu zuen organoaren aurrean. Horretarako hilabete izango duzu, hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.”

Erdoña, 2021eko otsailaren 3a

Bigarren alkateordea

DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO